



BIZKAIKO ELKARRERAGINGARRITASUN-PLATAFORMA

Dokumentua – Sarrerako/Irteerako datuak

Zerbitzua: *Sexu-delituak direla-eta aurrekarik ez egotearen kontsulta*

(Justizia Ministerioa)



Justizia Ministerioak eskaintzen du sexu-delituak direla-eta aurrekaririk ez egotearen kontsultarako web-zerbitzua, eta BFaren elkarreragingarritasun-plataforman jarrita dago; haren bidez, baliabide teknologiko bat eskaintzen da abenduaren 11ko 1110/2015 Errege Dekretuaren 9.3 artikuluan ezarritakoa betetzeko: interesdunak eskatuta, Sexu Delitugileen Erregistro Zentralean ez dauden pertsonen buruzko ziurtagiri negatiboak eman ahal izango dira; izan ere, ziurtagiri horiek beharrezkoak dira adingabeekin harremanak izatea dakarten lanbide, ogibide eta jardueretara sartzeko eta haietan aritzeko, hala betetzen baita Adingabeen Babes Juridikoari buruzko urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoaren 13. artikuluko 5. zenbakian ezarritako debekua.

Zerbitzuak eskatutako datuak:

- **Dokumentu mota:** Kontsultatu nahi den titularraren dokumentu-mota (NANA, AIZa edo pasaporte).
- **Dokumentu-zenbakia:** Titularraren dokumentuaren zk.
- **Izena:** Kontsultatu nahi den titularraren izena.
- **1. abizena:** Kontsultatu nahi den titularraren lehen abizena.
- **2. abizena:** Kontsultatu nahi den titularraren bigarren abizena.
- **Nazionalitatea:** Kontsultatu nahi den titularraren nazionalitatea.
- **Jaiotze-herrialdea:** Kontsultatu nahi den titularraren herrialdea.
- **Jaiotze-eguna:** Kontsultatu nahi den titularraren jaiotze-eguna.
- **Sexua:** Kontsultatu nahi den titularraren sexua.
- **Aitaren izena:** Kontsultatutako titularraren aitaren izena. Aukerakoa.
- **Amaren izena:** Kontsultatutako titularraren amaren izena. Aukerakoa.
Espanian jaiotako pertsonen kasuan, beharrezkoa izango da gutxienez ere guraso baten izena adieraztea (aitarena edo amarena).
- **Jaiotze-probintzia:** Kontsultatutako pertsonaren jaiotze-probintziaren kodea. Derrigorrezkoa da Espainian jaiotako pertsonentzat. Aukerakoa da atzerrian jaiotako pertsonentzat.
- **Jaiotze-herria:** Kontsultatutako pertsonaren jaiotze-herriaren izena. Derrigorrezkoa da atzerrian jaiotako pertsonentzat.

Ezin da egin 1920. urtearen aurreko kontsultarik, ez eta adingabeei buruzkorik ere.

Zerbitzuak informazio hau itzuliko du:

- zerbitzuak *EZ du adierazten herritar batek sexu-delituak direla-eta aurrekaririk duen*; zerbitzuen erantzuten du ea kontsultatutako pertsonak ***EZ duen aurrekaririk sexu-delituak direla-eta***, edo, kontrakoa, adierazten du pertsonak aurrekariren bat izan dezakeela sexu-delituak direla-eta, kointzidentzia bat baitago Sexu Delitugileen Erregistro Zentralean. Azken kasu horretan, ***eskabidea EZIN da bide honetan bideratu***, eta ***herritarrak beste bide bat erabili beharko du ziurtagiria lortzeko, eta modu presentzialean eskatu beharko du***.
- Erantzuna "Ez dago aurrekari penalik sexu-delituak direla-eta" bada, zerbitzuak 2 datu hauek itzuliko ditu erantzuna egiaztatu ahal izateko:



- **EKSa:** Egiaztapen-kode segurua.
- **URLa:** Justizia Ministerioaren URLa, non EKS kodea egiaztatu daitekeen.



BERTSIO KONTROLA

V.00	Bertsio Originala	2017/10/25
------	-------------------	------------